


txinpart



haurtzaro ikastolako aldizkaria

2006 Apirila • 34. zenbakia



ATAL BERRIA!

EUSKARAREN TXOKOA



aurkibidea

HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	8
EUSKARAREN TXOKOA	14
KILOMETROAK	20
GURASOOK JAKIN DEZAGUN	22
GU ERE KAZETARI	27
NAHASTE BORRASTE	28



05-06ko OHIKO BATZAR NAGUSIA



Ikasturte honi dagokion Ohiko Batzar Nagusia, otsailaren 3an egin zen. Ez da arrunta gabonak ondoren burutzea, baina Azaroan KILOMETROTAKO hasiera ekitaldiari lehentasuna eman zitzaion.

Parte hartzea handia izan zen, 120 bazkideetik gora bildu ziren bertan urteko gaiak lantzeko eta guztiak aho batez onartu ziren. Bilera bideratzeko metodologia berria izan zen; ikastolako eragile ezberdinen parte hartu zuten gaien azalpenean, eta Batzar dinamikoa eta atsegin bat egitea lortu zen.

GAURKO ERRONKA:EUSKAL CURRICULUMA

Urtarrilaren 21ean Donostiak Euskal Curriculumuma aztertzeke ikastolek egin zuten V. Batzar Nazionalako lehen saioa.

Haurtzaro Ikastola partaide izan zen bertan. "Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma. Baloratzeko eta hobetzeko proposamena" nola bideratu aurkeztu zen bertan eta lan hau ikastoletan nola bideratu landu zen.

Lanketa hau Haurtzaron martxoan bideratu da. Irakasleria alde batetik eta gurasoen ordezkariak bestetik lanean aritu da, eta Haurtzaro Ikastolaren proposamena dagokion lekuan agertu da.

Bigarren fasea 2006ko udazkenean aurreikusten da.

Azpmarratu nahi dugu bereziki izandako gurasoen partaidetza handia, eta barien inplikazioa.



"GOGORATU:

IKASTOLAKO EREMUAN EZIN DA ERRE"

Urtarrilean egindako Hezkuntza Batzordean, 2005eko abenduan onartutako erre-tzeri buruzko legearen aplikazioa Ikastolan nola gauzatu erabaki zen. Hona hemen hartutako erabakiak:

- Eskola eremuan(eraikuntza barruan eta kanpokaldean) eta eskola orduetan ezin da erre.
- Ikastolako ekitaldi ofizialetan ezin da erre.
- Ekintza osagarrietan, estraeskolarretan,; adin gutxikoen aurrean ez erretzea gomendatu edo aholkatzen da.
- Sortzen diren egoera ezberdinen aurrean, gaia aztertu eta erabakiak hartzen joango gara.

ERABAKI HAU SOZIALIZATZEKO:

- Bilera ezberdinetan adieraziko da: Guraso bilera, batzarra,...
- Kanpoan kartelak jarriko dira. Testua: " GOGORATU: ESKOLA EREMUA, EZIN DA ERRE"



MATRIKULAZIOA

06-07 ikastuteko matrikulazio garaia otsailaren 6tik 17ra izan da.

Matrikulazio kanpaina hau nola bideratzen den garrantzitsua bada ere, garbi dugu benetako matrikulazio urteko lanarekin egiten dela. Jaso ditugun fruituak onak dira: Bai 3 urtetan eta 2 urtetako matrikulazio kopurua igo dugu ikastolan. Beraz, guztion lanaren ondorioz denez, zorionak guztioi, bide onetik ari gara.

EREIN ETA GERO UZTA BERO

Ereindako haziak uzta ematen duela ez da gertakizun berria; zorionez, egunero, modu batera ez bada bestera, gure eguneroko lanaren uzta jasotzen dugu. Suertatzen dira honetarako momentu bereziak ere.

Santo Tomas inguruan Udalak antolatuta burutzen den Prosa-Poesia lehiaketaren emaitzak oso onak izan dira aurten ere. LH3. mailatik gorako ikasle guztiak parte hartu dute bertan; guztien lanak izan dira baloratzeoak, noski, baina sariak denentzat izaten ez direnez, hona hemen emaitzak:

- Prosa atalean: 17 sarietatik 11 jaso dituzte gure ikasleek.
- Poesian: 12 sarietatik 10 izan dira Haurtzaroko ikasleentzat.

Zorionak beraz parte hartu duzuen ikasle guztiei.

Joan den Martxoaren 13an, Euskaltzaindiak R.M.AZKUE literatur lehiaketako sariak banatu zituen. Lehiaketa hau 11-18 urteen arteko Euskal Herriko Gazte euskaldunei zuzendutakoa da. Aurkeztutako lan guztietatik 12 izaten dira sarituak; hauetako 2 sari gure ikasleek lortu dituzte: Izar Azpirozek Narrazioan, eta Irati Gaztelumendik poesian. Zorionak zuei ere.





2.Hiruhileko ibilaldiak

Maila	Noiz	Nora	Helburua
PATZUERGOA			
1. eta 2. hiruhil.	-Kiroldegira -Ergoingo Kooperatiba ingurura -Bidegorrira modu desberdinez: Tronpeoko maldatik, kiroldegitik, Zurko baserritik... -Basora -Txiki-parkera -Mendibilgo parkera -Aiton-etxera -Karrikara -Ibargaineko parkera	-Pizina ikustera, ondoko jolas parkean jolastera -Astoa, ardiak, antxumeak.... ikustera -Arriskurik gabeko gunean lasai ibiltzea (korrika...), jendearekin harremanu -Naturarekin harremanu (belarretan, hosto artean, maldatan...ibili; ezkurak, loreak... bildu -ondo pasatzea, gorputzarekin gozatzea -bertan jolastea -aiton-amonekin harremanu -iazko espazioa bisitatu, baserrira joan... -ingurua ezagutu, harri-gaineko haurrak bisitatu	
HH			
HH 1	Hiruilabetean zehar	LIBURUTEGIRA	HERRIKO LIBURUTEGIA EZAGUTU
HH1	Urtarrilean	BIDEGORRIRA	ZUHAITZAK BEHATU
HH1	Martxoak 15	DONOSTIARA	ZULOAGAREN OBRAK ETA AZOKA IKUSI
HH2	Hiruilabetean zehar	LIBURUTEGIRA	HERRIKO LIBURUTEGITAZ GOZATU
HH 3	Urtarrilak 20	Bidegorrira	Elkarrekin arratsaldea pasatzea
HH 3	Otsailak 17	Bidegorrira	Elkarrekin arratsaldea pasatzea
HH 3	Martxoan	Elizalden zehar	Herriko zenbait txoko ezagutzea eta bide seinaleak ohartzea
HH3	Martxoan	Udaletxera	Herriko alkatearekin hitzegitea
HH 3	Martxoak 10	Donibane kalera	Emakumeak egindako eskulanen erakusketa ikustea
HH 3	Martxoak 13	Donostira	Ingelesekin antzerki saio bat ikustea
HH 3	Martxoak 17	Herrian zehar	Herriko eraikuntza esanguratsu batzuk ikustea
Maila	Noiz	Nora	Helburua
LH			
L.H.1	Otsailak 7	Zinera	“oiloen ihesa” pelikula ikusi.
L.H.1	Martxoan 30	Ama Xantalen museora	Erromatarren garaiko aztarnak ikusi.
L.H.1	Apirilan	Arditurriko mehategietara	Erromatarren aztarnak ikusi.
L.H.2.	Urtarrilak 31	KUTXA ESPAZIORA Donostia	Unibertso aztertzea
LH 2	Otsailak 7	Donostiara	Filma ikusi eta ondo pasa
LH 2	Otsailak 9	“Urik onena” autobusera. (Oiarzun)	Uraren erabilpenetaz jabetzea



LH 2	Otsailak 23	Ingurugiro etxera, errotara, tren museora. (Azpeitia)	Natura eta garraioa lantzea
LH 2	Martxoak 2	Okindegira. (Oiartzun)	Ogia ekoizteko prozesua ikustea
LH 3	Martxoak 16	Donostia	airea eta haizea aztertzea
LH 3	Otsailak 20	Donostia	Zinea euskaraz
LH 4	Otsailak 20	Donostia	Euskara zine aretoetara
LH 4	Martxoak,13,14,15	Baratzera	Baratzeko hiru egunetako ibilaldia.
LH 5	Urtarrilak 17	Madalensorora	XI. Pilota Topaketak
LH 5	Otsailak 3	Gernika Guggenheim	Euskal Herriaren ezagutza
LH 5	Otsailak 20	Donostiako Antzoki Zaharrera	Euskarazko pelikula bat ikustera
LH 5	Martxoak 30	Agenda XXIeko topaketa	Kontsumerismoa
LH 5	Martxoak 31	Iparraldera	Euskal Herriaren ezagutza
LH 6	Apirilak 3	Donostiako Antzoki Zaharrera	Zinea Euskaraz - Donostia hiria ezagutu - planoaren erabilera
LH 6	Apirilak 6-7	Anorexia, Bulimia, Gizentasuna. Ikasle eta gurasoentzat tailer eta hitzaldiak.	
Maila	Noiz	Nora	Helburua
DBH			
DBH 1	OTSAILAK 7	Madalensoroko plazan autobusa bisitatu: Urik onena, alferrik galtzen ez dena proiektua	Natur arloko URaren gaian sakontzea
DBH 1	MARTXOAK 7	Mendi Enara taldearekin Agenda 21 barruan Publizitatea eta gorputza gurtzea saioa	Adin hauetan gaztetxoak, ingurutik jasotzen duten publizitatea medio dela, irudiari garrantzia gehiegi ematen hasten dira eta hori aztertzea
DBH 2	URTARRILAK 13	Kursaal Kuboa	Plastika arloko gaian sakontzea: erakusketak bisitatzea eta aztertzea
DBH 2	OTSAILAK 7	Madalensoroko plazan autobusa bisitatu: Urik onena, alferrik galtzen ez dena proiektua	Natur arloko URaren gaian sakontzea
DBH 2	MARTXOAK 16	Mendi Enara taldearekin Agenda 21 barruan Bidezko merkataritza saioa	Zer den, nola eta non lortu daitezkeen bidezko merkataritzan oinarrituriko produktuak .(Markak eta haurren esplotazioa lantzea)



DBH 3	OTSAILAK 7	Madalensoroko plazan autobusa bisitatu: Urik onena, alferrik galtzen ez dena proiektua	Natur arloko URAREN gaian sakontzea
DBH 3	Otsailak 14	Miramongo parke teknologikoa eta Zientziaren kutxagunea Natur arloko gaietan sakontzea Parke teknologikoa bat zer den ezagutzea	Natur arloko gaietan sakontzea Parke teknologikoa bat zer
DBH 3	MARTXOAK 1-2	Euskararen motibazio saioak Ttur-ttur elkarteko partaideekin	Hizkuntzaren erabilera indartzea
DBH 3	MARTXOAK 10	Ikastolan kantagintza izeneko ikastaroa Xabi San Sebastian kantariarekin (Oarsoaldeako zirkuitua)	Kantu bat egiteko prozesua eta kantariaren lana nolakoak diren ezagutzea
DBH 4	OTSAILAK 9	Evil filma Irungo Amaia aretoan Zineskola irudi biziak-en hezkuntza eta droga menpekotasunen prebentziorako programan txertatua	Filma ikusi ondoren, Etika arloan gai nagusienak aztertzea
DBH 4	OTSAILAK 14	Guggenheim museoa (Bilbo) eta Bizkaia zubia (Portugalete) bisitatzea	Arte arloarekin eta teknologia arloarekin lotutako ibilaldia
DBH 4	Otsailak 23 eta Martxoak 2	Ikastolan Dokumentalen ekoizpena, bikoizketa eta kameragintza izeneko ikastaroa Mikel Mendizabal adituarekin (Oarsoaldeako zirkuitua)	Dokumental bat nola egiten den, bikoizketak nola egiten diren eta kamerak dituen sekretuak ezagutzea
DBH 4	MARTXOAK 6-7	Euskararen motibazio saioak Ttur-ttur elkarteko partaideekin	Hizkuntzaren erabilera indartzea
DBH 4	MARTXOAK 29	Idazle baten bisita -Gotzon Garate.	Euskara arloarekin lotua: gaur egungo idazleak.
DBH 4	APIRILAK 4	Oiartzoko bisita	Batxilergoko ikastolaren jarraipena ezagutzeko helburuarekin burutuko dute irteera.
DBH 4	APIRILAK 6	Saharari buruzko emanaldia bi ikasleen eskutik	Munduan dauden beste errealitateak ezagutzeko bertan egin diren pertsonen eskutik jasotzea
DBH 4	APIRILAK 7	HERRI KIROLAK	DBH-4. A gelako ikasleak finalera parte hartzeko helburuarekin.



GURE TXIKIAK AITON-ETXEN AITONA-AMONEKIN



Aiton-Etxe, Altzibarren dagoen aitona-amonen eguneko zentroa da. Bi urte igaro dira ireki zenetik, baina horren berririk apenas genuen. Ikasturte hasieran, Itziar eta Iñaki, Aiton-Etxeren arduradunak, gure ikastolara etorri ziren euren haurra matrikulatzera eta izena ematearekin batera proposamen polit bat egin ziguten. Aitona-amonak eta haurrak elkartzeko aukera eskaini ziguten, elkarrekin ekintza batzuk bideratzeko proposamenarekin: bisitak, festetan parte hartzea, etab. Guri oso ideia ona iruditu zitzaigun. Gu beti prest egoten gara honelako inizatibak aurrera ateratzeko, batetik, haurrek gizarte honetan era askotako pertsonak bizi garela jakin behar dutelako eta, bestalde, aitona-amonen eta txikien artean sortzen den harremanak maitasun eta goxotasun berezia transmititzen duelako. Esan beharrik ez dago, gu berehala animatu ginela lehen txangoa antolatuz.

Urtarrilak 12, osteguna. Berokiak jantzi eta kalera abiatu gara. Goiza freskoa da, baina eguzkitsua ere bai. Paseatzeko espeziala. Altzibar aldera joan gara bide gorritik barrena eta Aiton-Etxera iritsi gara. Denak batera sartu gara, eta hor topatu ditugu aitona-amonak eserita, borobil bat eginez, gela eder eta argitsu batetan. Erdian jarri gara eta pixkanaka haur guztiak aitona-amonengana hurbildu dira.



Batzuk harrituta geratu dira, egoera berria eta desberdina zelako. Solasean egon gara elkarrekin, haurren izenak esanez, zenbat urte dituzten, nongoak diren... Euren ere, aitona-amonak, alegia, beren ilobak aipatzen zituzten, zein izen zuten, zein adin zuten eta abar. Pozik zeuden. Erdian eseri gara, lurrean, eta kantatzeari ekin diogu: Olentzero, Alaken, Elurrezko panpina.... Abestiak zekizkitenak gurekin batera kantatzera animatu dira eta txalo eta mugimenduekin lagunduz, oso une atsegina igaro dugu. Bertako amona bat dantzan ere hasi da denen artean, umore ederra zuen. Aitona-amonen aurpegietan irribarrea islatzen zen, txikien artean eta txikien kontura sortutako giroagatik.

Joateko garaian, eskua eman eta muxuak emanez agurtu ditugu. Argazkiak atera ditugunez, beste egun batean itzuliko ginela agindu diegu. Eskuarekin adio esanez berriro ikastolako bidea hartu dugu, bazkaltzera joateko.

Gaurko bisita honekin poza eta bizitasuna eman diegu. Oso aberasgarria izan da denontzat, ume txikiak eta aitona-amonak elkarrekin ikusteak badauka bere xarma. Emozio uneak igaro dituzte. Bertako amona batek zera esan du: "etorri politak, gu ere zuek bezalakoak gara, gu ere haurrak gara baina handiagoak".

Laster arte aitona-amonak. Berriro ere etorriko gara zuek bisitatzera eta bide batez, atera ditugun argazkiak ekarriko dizkizuegu, maitasun handiz. Muxu bat.






GU ERE KANDINSKY BEZALA

EZAGUTZEN AL DUZUE KANDINSKY?


GUK ORAIN IZAN DUGU AUKERA ETA ERRUSIAR HONEN "VIII. KONPOSIZIOA" IKUSI ETA BEHATU DUGU. ONDOREN IRUDI GEOMETRIKOEKIN KONPOSAKETAK EGIN DITUGU. GUSTATZEN AL ZAIZKIZUE?, GUK BEHINTZAT, EDERKI PASA DUGU.



BLOKE LOGIKOEKIN



EZ AL DAGO DOTORE?



GOMETXEKIN

ZIRKUA DONOSTIAN ETA BILBON EGON ONDOREN, GURE IKASTOLARA IRITSI ZEN BERE PAILAZO, DOMATZAILE ETA ANIMALIA BASATIEKIN. EMANALDIA 4 URTEKO HAURREN GELAN IZAN ZEN ETA 3 URTEKO HAURREK IKUSKIZUNAZ GOZATZEKO AUKERA IZAN ZUTEN.





ORAINGOAN ERE ARTISTAK BIHURTU GARA. 4 ETA 3 URTEKO LAGUNEI PASTORAL EMANALDI BAT ESKAINI GENIEN, "MAKILAKIXKI" IPUINEAN OINARRITUA.

HAU GUZTIA EGIN AHAL IZATEKO, LEHENDIK ASKO ETA ASKO ENTSEATU GENUEN, AGERTOKIA ATONDU, MOZORROTU ETA AZKENEAN, EMANALDI EGUNA IRITSI ZEN. A ZER NOLAKO URDURITASUNA!




BAINA, PRIMERAN PASA GENUEN ETA TXALO ZAPARRADA EDERRA JASO.

GEHIAGO IKASI ASMOZ, MARTXOAREN 13AN DONOSTIAKO SANTA TERE-SA IKASTETXERA JOAN GINEN, INGELESEKO ANTZERKI BAT IKUSTERA.



NOLA ELIKATU BEHAR DUGU OSASUNTSU EGOTEKO?

- Janarien bidez lortzen dugu egunero behar dugun energia.
- Jatea behar beharrezkoa da bizitzeko.
- Denetik jan behar dugu.
- Beharrezkoa da ongi gosaltzea: fruta, zerealak, esnea...
- Piramidearen esanahia ulertu dugu eta saiatzen gara emandako aholkuak betez, hobeto elikatzen.





Zer egin beharko litzateke sortzen dugun zaborrarekin?. Nola murriz dezakegu sortzen dugun zabor kopurua?

Galdera hauen inguruan hausnarketa egiteko aukera izan zuten 2.mailako ikasleek Azpeitiko ingurugiro etxean

Azpeitiko bidaia aprobetxatuz, antzina-ko errota bat ezagutu zuten.



"Airea gora haizea behera, "firin faran airea dantzan", Donostian barrena haizearen orrazia ikusten izan ginen. Giro ederrean hondartzan ibili ondoren, Urgul mendira igo, gaztelua ikusi, ... BAI EGUN EDERRA PASA GENUELA!!!!!! "



IDAZLEAK GELAN

Kaixo lagunok:

Zer moduz doakizue 2. hiruhilabetea?

Oraingo honetan, idazle baten bisita izan dugula adieraztera gatoz.

Orain dela gutxi, Espainiako sari bat irabazi zuen "Krokodiloa ohe azpian" ipuinarekin. Nor da? Asmatu al duzue?

Ba... Mari Asun Landa da, Oreretakoa.

Gauzatxo batzuk kontatu zizkigun: gure adina zuenean asko irakurtzen zuela, eta garai hartan kruasanak komikiak baino gehiago gustatzen zitzaizkiola; olerkiak oso gustukoak dituela, eta mendia eta zinea ere bai; baina matematikak, berriz, ez hainbeste...

Hogeita hamabost bat ipuin idatzi ditu, baina ez du inoiz komikirik egin.

Bukatzeko, gelako liburu batean sinatu zigun.

Agur lagunok, eta beste bat arte.





KALEAN ERE GURE BURUA BABESTEN IKAS DEZAGUN

Bost urtekoetatik hasi eta DBH 3.maila bitarteko guztiak, aurten ere, Bide Hezkuntzako saiotan parte hartu dugu. Saio hauek Oiartzun autoeskolako Aitziber Etxebeste eta Igor Ibarguren udaltzainaren gidaritzapean burutu dira. Horri esker, kalean ere gure burua babesten ikasiko dugu



Marrazo gosetia

*Marrazo izango banintz,
igeri egingo nuke.
Igeri egingo banu,
uretan ibiliko nintzateke.
Uretan ibiliko banintz,
arraiak jango nituzke.
Arraiak jango banitu,
legatza jango nuke.*

*Gaur afaltzeko daukagu legatza,
gainetik botako diot gatza
eta jango dut arrai gaitza.*

*Zu legatza bazina
Nire tripan egongo zinateke
Txiki- txiki egina.
Eta gero aterako zinateke,
kaka artean,
zikin-zikin egina.
Eta hori ez dut uste
dela oso atsegina.*

*Zuretzat hobe litzateke
Beste arrai bat bazina.*

*Miren Idarreta
LH 6B*



JUAN MARI LEKUONA (1927-2005)

Juan Mari Lekuona Berasategi oiartzuarra, "Oianburu" ezizenez ezaguna, Oiartzunen jaio zen 1927ko azaroaren 11n.

Gazte zelarik, apaiz izateko ikasketak burutu zituen Gasteizen, eta berehala, Erromako Unibertsitate Gregorianora joan zen teologia ikasketak sakontzera. Oiartzuar ospetsu honek gaztetatik sentitu zuen letretarako zaletasuna eta euskaraz idaztea erabaki zuen euskal kulturaren egoera zaila ikusita. Berak idatzi zuen euskarazko lehen poema "Lindura gaur" izan zen. Bere hasierako poemak Egan, Olerti, Zeruko Argia eta beste zenbait aldizkaritan kaleratu zituen.

Poeta oso erlijioso eta aldi berean filosofikoa, euskal poesia tradizionalan herritzaile eta zenbait arlotan aitzindari, goi mailako hegaldi poetiko bakan bezain bakanaren jabe izan da.

Juan Mari Lekuona harritzen duen poeta izan dela dio Arantxa Iturbe idazleak, eta aurrerapauso anitz eman dituen. Bere ibilbidean zehar, sari ugari jaso eta aldi berean, lan ugari egindakoa da eta bere ibilbide poetikoa lan poematiketan banatua utzi du, gure artekin joan aurretik.

Bestalde, poeta ez ezik, euskaltzain, ikerlari eta irakasle lanetan ere aritu da. 1953an euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak. Euskaltzain oso zen 1987az geroztik, Manuel Lekuona, bere osabaren ordezkari hautatua izan baitzen. 1989az geroztik Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkari eta Euskaltzaindiaren literatura batzordeko burua izan zen.

Amaitzeko, Euskal itzultzaileen ikasketak, lanbidea eta normalizaioa hastapen-hastapenetik landu zutenetako bat izan zen, EIZI Eren (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreten Elkartearen) sortzailetako eta lehen lehendakaria izan zen, 1987-1990 bitartean. Denbora horretan gogotik saiatu zen elkarte sendotzen eta itzultzaileen lan egoera hobetzeko bitartekoak bilatzen.

Juan Mari Lekuonak sari ugari jaso ditu:

- 1990ean Euskal Literatur saria eman zioten "Mimodramak eta ikonoak" poema liburuarengatik.
- 2002. urtean, EIZIEk ohorezko bazkide izendatu zuen.
- 2002. urteko abenduan Egan aldizkariak Oiartzunen omendu zuen.
- 2003ko maiatzean, beste 18 apaizekin batera, apaiz lanetan 50 urte betetzeagatik saria eman zioten.

Azkenean, gaixotasun larri baten ondorioz, gure herritarra eta hain ospetsua den Juan Mari Lekuonaren agurra etorri zen. 2005eko abenduaren 5ean, 78 urte bete ostean, gazte joan zitzailen denok hainbeste miresten genuen poeta oiartzuarra.



Bere obrak:

- **ANTOLOGIA**
 - 1685eko Kopla Zaharrak 1992, Eibarko Udala
- **BIOGRAFIA**
 - Manuel Lekuona (1894-1987) 1988, Eusko Jaurlaritza
 - Manuel Lekuona Etxabeguren 1995, Eusko Ikaskuntza
- **KANTUAK**
 - Oiartzungo kantutegia 1999, Oiartzungo Udala
- **POESIA**
 - Mindura gaur 1966, Apaiztegia
 - Muga beroak 1973, Gero
 - Ilargiaren eskolan 1979, Erein
 - Mimodramak eta ikonoak 1990, Erein
 - Ibilaldia. Itinerario 1996, EHU-UPV
 - XX. mendeko poesia kaierak - Juan Mari Lekuona 2000, Susa
- **SAIAKERA**
 - Ahozko euskal literatura 1982, Erein
 - Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996) 1998, Deustuko Unibertsitatea



ESKUTTUN

Ikastolako Euskara Elkartea

Lehengo ikasturtean sortu genuen DBHko ikasleok Elkarte hau, eta aurten ere hor gabiltza batzuk gure ESKUTTUN hau aurrera atera nahian.

Ikasturte hasieran izan genituen eragozpen zenbait, baina uste dugu neurria hartu diogula, eta oso gustura ari gara lanean. Eskola orduetan ezin genionez behar bezala erantzun, hiruhilabete honetan ostiral arratsaldetan hasi gara elkartzen. Ordubietan hasi eta ordubetez gutxienez. Anttonek laguntzen digu ekimenak programatzen eta baliabideak eskuratzen.

Aurtengo ekimen nagusiak, EUSKARA HOBE-AN HOBE du izena, eta hilero ikastolako paisaia esaldi dotorez betetzen eta apaintzen dugu dugu. Hilero esaldi berria zintzilikatzen dugu ikastolako paretetan. Normalean gaizki erabiltzen ditugunak zuzentzen ditugu. Esate baterako, martxoan HOTZ GITEN DU ipini dugu, askok hotza ari du esaten baitugu.

Ikasleen artean arrakasta gehien duten kantuen bilduma eta sailkapena egiten ere ari gara. Argitxo nerabearen lehiaketaren oinarriak ere idatzi ditugu. Apirilean, berriz, HHko ikasleei ipuinak kontatu behar dizkiegu gutariko batzuek, eta beste batzuek txotxongiloen bidez antzerkitxoak eskaini.



Hasiera besterik ez da, baina aurrera jarraitzeko asmoa eta gogoa ere badugu, gure hizkuntzaren alde zerbait egiteko. Bada garaia, gure kasa eta irakaslerik gabe gure ekimenak aurrera ateratzen hasteko.

ESKUTTUN (2006-III-6)



EUSKARAZ BIZI

Beste gauza askoren artean bi dira urte sasoi honetan esku artean ditugun ekintzak.

1-Apirileko liburuaren eguna dela eta, DBHko eta ttikien arteko kidetze planaren barruan antolatu ditugun irakurketa saioak eta besteelako zenbait emanaldi.


a) 3, 4 eta 5 urteko ikasleengana ESKUTTUNeko sei ikasle joango zaizkie ipuin bana kontatzera, apirilaren 3tik 7ra.

b) 3 urtekoei, DBHko beste hiru ikasle hurbilduko zaizkie, Argitxo, Unai eta Nagoreren ipuin baten txotxongiloa aurkeztera.

c) Aste berean, hiru ikasle ohi ariko dira LHko lehen ziklokoei ipuin kontari.

2.-KMK 06 dela eta, Unitate Didaktiko baten antzeko zerbait egiteko ahaleginetan ari gara. Horretarako, INTXIXUEN inguruko ipuinak behar genituen, testu horien gainean unitatea eraikitzeko. Ipuinak badauzkagu. DBHko ikasleek idatzitako lau, eta LHkoek idatzirik beste lau. Horretarako Pello Añorgaren laguntza izan dugu, besteen artean. Orain Lidek Ipuin hauek ilustratu egin behar ditu. Anttonek, ipuinetako pertsonaien inguruko kanta idatzi. Amaiak kantaren musika idatzi. Eta azkenik, ipuinei buruzko irakurketa eta ulermen ariketak prestatu. Ea zer ateratzen den.

Antton



Ingo

Inauteriak 2006



yeu

HAURTZARON



NEU



Irratia





Txinpart aldizkarian Kuadrillategiren inguruko atal bat sortzeko ideia proposatu ziguten egitasmoa begiraleoi, eta ideia polita iruditu zitzaigun. Egia da guztiontzat berria izan dela Kuadrillategi, baina egia da baita ere, gazteen erantzuna espero zitekeena baino hobea izan dela. Horregatik, beraiei emango diegu hitza, beraiek esan dezatela nola bizi duten hau guztia:

Apa lagunak!

Urrian hasiera eman genion Kuadrillategi egitasmoari. Honen helburu nagusia koadrilen artean euskaraz gehiago hitz egitea da, gure artean euskaraz egitea, eta noski, euskaraz eginez, ondo pasatzea.

Hasiera batean, ez genekien oso ondo zer nolako ekintzak egingo genituen, baina, hala ere, lagun talde handia elkartu ginen. Koadrilaka eman behar genuen izena, eta azkenean DBH 2 eta 3ko 80 gaztetik gora elkartu gara bertan.


Dagoeneko sei hilabete pasa dira eta ekintza desberdin asko egin ditugu. Jende asko garenez, denen gustuko ekintzak egin ditugu, egitasmoaren hasieran guk botatako proposamenak kontuan hartuz. Ostiralero egiten ditugun jolas, eskulan edo ekintzez gain, beste hainbat gauza egin ditugu. Adibidez, Lezo eta Pasaiaiko lagunekin batera Oriola bi eguneko irtenaldia, ibilaldia eskiatzera Luz Ardidenera, urtea agurtzeko afaria... eta nola ez, ugaldetroko lokalean bertan entzun ahal genuen bertso saio-elkarritzeta, Jon Martin, Sustrai Colina eta Amets Arzallusekin.

Polita iruditu zaigu artikulu hau beraiek joan aurretik idatzi ziguten bertso batekin bukatzea, eta Ametsena aukeratu dugu horretarako.

Jada baduzue gure berri gazteok, orain gure artera gonbidatzen zaituztegu!!

Gela batean sartu bi hankak
bi eskuekin batera,
sartu jolasak, sartu musika
sartu gu, sartu euskera,
ostiraletan, denbora batez,
dena nahastu ta ostera,
Koadrilategik bertu chena
muraria ez ote da:
sei lagun sartu zineten
lasegeita bert atera.

Amets





KMK06 OIA RTZUN

Gure artistak "ZumKMK 06ren antolaketan aurrera goazen heinean, zure laguntza ezinbestekoa zaiqu.

Eguna gero eta gertuago dugunez, laguntza emateko deialdiak jasoko dituzue.

Zure izena eman eta denon artean Ingo Yeur' ingo ñeu

EUSKARAREN BASOA

Oiartzungo herrian naturaren inguruan sortzen ari den proiektuaren alderdi hezitzaileak indartzea eta bultzatzea helburutzat du KMK 06ak.

Horregatik, joan den martxoaren 3an, ingurugiroa eta natura maitaleak familia giroan goiz pasa atsegin bat egin zuten. Oiartzungo Sasterre inguru zoragarrian, Foru Aldundiak

KMK 06rekin elkarlanean antolatu zuen zuhaitz eguneko Euskararen Basoan 600 zuhaitz inguru landatu ziren, eguraldia lagun.

Ondorengo belaunaldientzat altxorra izango den natur ondarea landatzeagatik parte hartu zuten guztiei mila esker.



KMK 06 LILATOIAN

Martxoaren 8an, emakume langilearen nazioarteko eguna ospatzen denez, Donostiako 17. Lilatoian, Oiartzungo emakume talde batek KMK 06a Kontxako pasealekuraino eraman zuen. Jai giro ederrean, kirolaz gozatuz, goiz zoragarri bat pasa zuten.

Mila esker erakutsitako elkartasunagatik.



INAUTERIAK ETA KMK 06

Oiartzungo ihote taldearen proposamenaren ildotik, otsailaren 25ean eta 26an KMK 06ko txosna jarri zen kontsejupean.

Inauteri giroan, salda beroa, ogitarteko eta edari freskoak oiartzuarren eskura jarri ziren.

Mila esker bertaratu zineten guztioi.

Guztion artean Ingo Yeu, ingo ñeu.



KMK 06ak BADU IBILBIDEA!

Oiartzungo bide gorria ardatz hartuta, 7km inguruko ibilbidea markatu da. Oiartzungo auzo eta paisaia ezberdinez gozatzeko aukera izateaz gain espero dugu egun zoragarri eta eguzkitsua lagunduko digula urriaren 1ean.





HERRIKO OHITURAK MANTENDUZ...

Euskal Herriko ohitura zaharrak gal ez daitezen egiten dugu lan Haurtzaro ikastolan.

Gure ardura ere bada, irakasle, ikasle, guraso, herritarrena, etorkizunean ere jarrai dezaten lana tinko egiten. Eta zein den lana? Parte hartu, gozatu eta jaiaren muina ahalik eta hobekien ulertzea. Hona hemen adibide batzuk:

SANTO TOMAS

DOLORES
LEKUONA.

Beti gogoratuko
ditugu zuk
egindako talo
goxuak. Eskerrik
asko!



IÑUDE ETA ARTZAIK



OLENTZERO



SANTA AGEDA



Aurten ere,
gogoeta egin
diogu Ageda
Deunari. Otsailaren
4a, larunbata
zenez, ostiral
arratsaldean
kantatu genituen
kopla zaharrak;
ttikiak, ikus-
entzule bikainak
genituelarik.




INAUTERIAK



Auto zaharra erosi diat!

Kiotoko hitzarmena, garapen jasagarria, Agenda 21... hainbat konpromiso hartzen ditugun gizarte hone-tan, esanguratsua da autoarekiko diagun adikzioa eta erregai fosilekiko egiten dugun kontsumismoa.

Iaz, Ford zaharrak erregaian gastatzen zuenarekin izuturik eta, nola ez, kutsadura "murrizteko" aurpegia zuritu nahirik, denda denda aritu ninduan teknologiak "nire beharra" asetzeko zer eskaintzen zidan aztertzen. Aukeratu eta baita erosi ere! Kontsumo gutxiko gasolio motore-dun autoa.



Baina, urtebete berandago... lehenengo kolpea! Non ikusten diadan, gero eta maizago, gure autopista eta errepide guztietan gero eta artalde handiagoa dabilela. Gure ardi-latsa bide guztietan barrena dabil!

Ikaragarritzko salmenta izan dik! Agian, landareen pare, energia fotoikoa sintetizatu eta erregai moduan erabiliko ditek!

Txantxa alde batera utzita, artikulua hau idaztera bultzatu nauen berria orain gutxi jaso diate nire belarriek; motore hibrido-dun autoak!

Teknologia arloan, urtero, ikasleekin lantzen dudana bezala, garai bateko bizikleten dinamoen moduan, mugimenduaz baliaturik energia elektrikoa sor liteke. Horretarako nahikoa da motore elektriko bat alderantzizko funtzioan erabiltzea. Hau da, era arruntean energia elektrikoa sartu eta mugimendua ateratzeko ahalmena duenak, alderantziz ere, mugimenduz hornituta energia elektriko sortzeko gai duk.

Hala, erregai fosilen prezioaren gorakada aurreikusita edo... badira auto "ekologikoagoak" ekoizten hasi diren markak; motore hibridoak dutenak adibidez.

Funtzionamendu sinplea dute. Bi motorez hornitzen dituzte, bata gasolinaduna eta bestea elektrikoa. Gasolina motoreak sortzen duen mugimendua, motore elektrikoaren bidez, bateria kargatzen du elektrizitatez. Bateriak beteta motore elektrikoa erabilgarri bihurtzen da eta gasolinakoa etenegiten da. Bateriak agortu baino lehenago gasolina motoreak lanean hasiko da, bateriak birkargatuz.



Hau guztia, eskuz ala modu automatizatuz egin omen liteke, autoak kontsolan duen ordenadore txiki batez.

Itxuraz, hiri barnean dabiltzanean motore elektrikoa erabiltzen dute. Hirian beraz, ia ez du soinurik egiten eta gas emisiorik ez duenez, kutsadura murrizten laguntzen du.

Eredu honen aldeko apustua egin duen auto-markak, marka guztiak hautsi omen ditu petrolioaren inperioan, Estatu Batuetan. Gainera, 2005 urteko autoa izan omen da Europan. Irungo taxi-gidari batek erosi omen du. Probatzeko irrika diat!

Bukatzeko, zer esango diat ba, auto berria zelakoan, zaharra erosi diadala! Damu nauk, bizikleta dezentea erosi behar nian!

Josu Arotzena
Teknologia arloko irakaslea



DBHko GURASO ESKOLA: DROGOMENPEKOTASUNA

Aurreko urtetan egindako lanari jarraituz, aurten ere Haurtzaro Ikastolak DBHko ikasleekin hasi du **Drogamenpekotasunaren prebentziorako programa**. Programa honek herri mailan antolatuta dagoen ekimenaren jarraipena izatea du helburu. Honekin batera, gurasoei zuzendutako hitzaldia antolatu genuen otsailaren 14an. Hizlaria Txus Congil izan zen, Askagintzako koordinatzailea. Askagintza, urteetan Euskal Herrian drogaren fenomenoaz aztertzen aritu den herri kolektiboa da eta azken urte hauetan, Udalak eskatuta, Oiartzungo Drogamenpekotasunaren errealtatearen ikerketa egiten ari da.

Saioa amaitutakoan, bertan bildutako gurasoek balorazio orria bete zuten, eta hona hemen jasotako balorazioa:

1. SAIOAREN EDUKIA:

Bikain: 13 guraso
Oso Ongi: 16 guraso
Ongi: 2 guraso

Beste:

- Zuzen eta helburuari lotuta
- Interesgarria baina ezaguna

2. SAIOAREN ANTOLAKETA:

Bikain: 16 guraso
Oso Ongi: 17 guraso
Ongi: 4 guraso

3. SAIOAK ASE AL DU GAIAREN INGU- RUAN ZUK ZENUEN JAKINMINA / KEZKA?

Bikain: 6 guraso
Oso Ongi: 21 guraso
Ongi: 3 guraso
Gutxi: 2 guraso

Beste:

- Bai: 6 guraso

4. HIZLARIAREN PRESTAKUNTZA:

Bikain: 22 guraso
Oso Ongi: 11 guraso
Ongi: 1 guraso

Beste:

- Hizkuntzarekin zailtasunak

5. GAIAREN INTERESA:

Bikain: 32 guraso
Oso Ongi: 6 guraso
Beste:

- Handia: 3 guraso

6. JENDEAREN PARTEHARTZEA:

Bikain: 3 guraso
Oso Ongi: 9 guraso
Ongi: 18 guraso
Nahiko: 4 guraso
Gutxi: 3 guraso

Beste:

- Denbora gehiago eskaini behar

7. PUNTUA EZAZU SAIOAREN ASEBETE- TZE MAILA OROKORREAN:

Bikain: 9 guraso
Oso Ongi: 27 guraso
Ongi: 1 guraso
Gutxi: 2 guraso

Beste:

- Bai: 5 guraso



IDATZ ITZAZU ZURE EKARPENAK:

- Zein da zure ustez, guraso eskolako jardueretarako ordurik egokiena (marka ezazu bat):
 - 5ak: 33 guraso
 - 6ak: 4 guraso
 - 7ak: guraso bat
- Zer iruditzen zaizu egin beharko lukeela ikastolak gaiaren inguruan?
 - Ikasle eta gurasoen diagnosia konpartitu eta elkarlanean aritzeko ekimenak antolatu.
 - Irakasle, guraso eta ikasleak prestatu.
 - Beste hizlari batzuk ekarri: sendagilea, psikologoa...
 - Seme-alabei informazioa eman.
 - Informazioan sakondu.
 - Gaiarekin jarraitu: 3 guraso.
 - Gurasoak oro har hezi.
 - Informatzen jarraitu: 3 guraso.
 - Dar más información a padres-madres e hijos-as: 3 guraso.
 - Talde txikitan aritu.
 - Dagoenarekin jarraitu: 3 guraso.
 - Ingurua behatu.
 - Drogamenpekotasuna sendatzen edota tratatzen duen zentro batetara joan eta droga-zale batek (tabakoa, alkohola,...) bere bizitza kontatu zuzenean.
 - Erne egon eta orain arte bezala informatu.
- Gai honekin erlazionatutako beste gairen bat tratatuko zenuke? Zein? Zergatik?
 - Gazteen motibazioa landu, aktiboak bihurtu.
 - Nola lagundu hazten denok eta denon artean?
 - Denbora librearen antolaketa.
 - Baloreak.
 - Gurasoen gabeziak gainditzen lagundu.
 - Oiartzungo arazoak.
 - Gurasoen, haur eta gazteen heldutasunean lagundu, nola egin?
 - Parrandetan tabernei alternatibak bilatu edo ondo pasatzeko beste bide batzuk jorratu.
 - Kontsumoa eta giza harremanak.
- Aurrera begira, zer beste gai proposatuko zenituzke?
 - Sexu harremanak, sexualitatea: 5 guraso.
 - Inteligentzia emozionala, komunikazioa.
 - Giza trebetasunak eta baloreak guraso eta ikasleentzat.
 - Koadrila, lagunak...
 - Mugak jarri/disziplina.
 - Autoritatea/autoritarismoa.
 - Kontrol ona... konfiantza landu
 - Haur eta gazteen ezaugarri psikologiko-ebolutiboak.
 - Egungo gizartearen heziketa integrala: zer da? Nola egin?
 - Balore sozialak (errespetua, elkartasuna vs lehiakortasuna...) landu eta pertsonaren sormena bultzatu.
 - Nuevos medios de relación: internet, móvil...
 - La validez de los valores de siempre en el momento actual. Los cambios que se están produciendo.




ONDO ELIKATZEN AL GARA?

Azken urteotan, gero eta handiagoa da elikadura arazoak dituen jendearen kopurua. Arazo hauen jatorria estresa omen da. Horren erruz, ez dugu sukaldean aritzeko denborarik eta janari lasterra zerbitzatzen duten jatetxeen kopurua hazten ari da.

Aipatutako elikagai mota hau oso kaltegarria da gure osasunarentzat eta gaixotasun ugari eta oso arrisku-tsuak sortzen ditu. Gaixotasun hauek larriak izan daitezke zenbaitetan, eta kasurik okerreanean, heriotzaraino eramán gaitzakete; Espainiako estatuan, adibidez, bi biztanletik batek loditasun arazoak ditu eta loditasun honek sortutako gaixotasun kardiobaskularrek heriotzen %35a eragiten dute, minbiziak baino gehiago.


Gaur egungo gazteen elikadura ohiturei buruzko ikerketa egiteko, D.B.H. 4. mailako 15 ikasleri inkesta bat egin zitzaion. Bertatik, datu interesgarri hauek lortu dira:

1.-Zein maiztasunekin jaten duzu etxetik kanpo?



■ noizean behin
■ inoiz ez


2.- Zein maiztasunekin jaten duzu janari lasterreko jatetxe batean?



■ noizean behin
■ besterik


3.- Zer iritzi duzu janari lasterrari buruz?

Erakargarria izan arren, loditu egiten du gehienek ustez (%93.33)




■ zerrikeria besterik ez dela
■ azukre eta gantz asko dituela
■ janarien osagaiak kaltegarriak direla
□ olio eta gantz saturatu asko dituela
■ kontserbante gehiegi dituela
■ kalitate txarreko janaria dela

4.- Etxean aurrez prestatutako jakiak kontsumitzen al dituzue?




■ bai
■ ez

6.- Zer iritzi duzu zure elikadura ohiturei buruz?



■ bat
■ bi
■ ez dut jaten
□ bost edo gehiago

5.- Zenbat fruta pieza jaten dituzu Egunean?



■ bat
■ bi
■ ez dut jaten
□ bost edo gehiago

Inkestatutako ikasle hauen artean arazoa oraindik oso larria ez den arren, kontuz ibili behar dugu janari laster eta antzeko jakiekin, arazoa benetan larria izan ez dadin.

ANE AIESTARAN



LUR KORTARI ELKARRIZKETA

• ZERTAN EGIN DUZU LAN? ZERTAN ARI ZARA ORAIN?

Antzerkiak, ipuin saioak, haurrentzako animazioak, pailazo lanetan eta telebistan ere egon naiz; Betizu saioan espresio irakasle, eta noiz edo noiz Goenkalen ere ateratzen naiz.

Orain antzerki talde batean nago. Momentu honetan, entseatzen eta obra prestatzen ari gara.

• TXIKITAN ZER IZAN NAHI ZENUEN?

Nire amonak esaten zuen antzerkia asko gustatzen zitzaidala. Egia esan, ni ez naiz gogoratzen, pentsatzen dut antzerkia gustatuko zitzaidala, segituan bide hori hartu bainuen.

• ZENBAT URTEREkin EGIN ZENUEN LEHENENGO IPUIN KONTAKETA? ZERK BULTZATU ZINTUEN?

22 urterekin. Iruñean arte dramatikoa ikasten ari nintzen 2. mailan eta praktika batzuk egin behar nituen. Ipuina edo poesiaren artean aukeratu behar nuen, ipuina aukeratu nuen eta ondo atera zitzaidanez...

• ZEIN ARTISTAREN ANIZA IZAN NAHI ZENUKE?

Egia esan inorena, nire bidea jarraitu, ondo egiten saiatu eta kito.

• IPUIN KONTAKETA BAT PRESTATZEN ZENBAT DENBORA IGAROTZEN DUZU?

Ipuin kontaketaaren arabera, batzuetan ez dut ezer egiten; deitzen didaten lekuaren arabera, ez banaiz inoiz egon, prestatutako errepertorio bat daukat, prestatu behar ez dudana. Baina Oiartzunen, adibidez, hilero saio bat dudanez, gehiago prestatu behar dut... aurreko arratsaldean edo aurreko egunetan.

• NONDIK ATERATZEN DITUZU IPUINAK? ZUK ASMATURIKOAK KONTATZEN AL DITUZU?

Bai, asmatzen ditut. Eta orokorrean, irakurtzen ditudanak eta asmatzen ditudanak kontatzen ditut... nahasketa bat egiten dut.

• ZEIN DA IPUIN KONTAKETA BATEKO IKUS-ENTZULE ZAILENA? ETA ERRAZENA?

Zailenak 12, 13 urteko gazteak dira, eta errazenak 5 urteko haurrak edo helduak, entzutera gustura joaten direnak.



• ZER NAHIAGO DUZU IPUIN KONTAKETA MOTZA ALA LUZEA?

Motza. Normalean ordu beteko saioak izaten dira, luzeagoak ez dituzte eskatzen, haurrak aspertu egiten baitira eta zu zeu ere aspertu egiten zara. Hobeto da motza eta polita izatea. Egin izan dut ordu eta erdiko saioen bat, baina luzeegia izaten da.

• ZURE BIZITZAN ERAGINA IZAN DUEN ERABAKI BAT.

Agian, antzerkian jarraitzea. Antzerkia ikasi nuen, baina ez nekien jarraituko ote nuen, gero, lana atera zitzaidan...

• LITERATURA GUSTUKO DUEN GAZTETXO BATI ZEIN AHOLKU EMANGO ZENIOKE? ETA GUSTUKO EZ DUEN BATI?

Asko, asko eta asko irakurtzea eta ahal badu idazten saiatzea, edozer gauza idaztea. Gustuko ez duen bati, gauza bera. Niri ere ez zitzaidan irakurtzea gustatzen, orain, ez dut beste erremediorik eta asko irakurtzen dut, lanarengatik...

Hondartza edo igerilekua? Hondartza.

Mendia edo hiria? Hiria.

Trajea edo txandala? Txandala.

Irakurri duzun azken liburua? Ipuin bat izan da, "Baratz beldurgarria".

Ikusi duzun azken filma? "101 Dalmatas", 2. zatia.



Algunos tantanes

- Era un hombre tan bizco, tan bizco, tan bizco, que cuando lloraba las lágrimas le caían por la espalda.
- Era una mujer tan vieja, tan vieja, tan vieja, que llegó a ver el arco iris en blanco y negro.
- Era un hombre tan viejo, tan viejo, tan viejo, que cuando iba al colegio aún no habían clases de historia.
- Era un hombre tan bajito, tan bajito, tan bajito, que cuando murió, en lugar de ir al Cielo fue al techo.
- Era una mujer tan alta, tan alta, tan alta, que tropezó en un pueblo y fue a caer en otro.
- Era una mujer tan vieja, tan vieja, tan vieja, que conoció al mar Muerto cuando todavía estaba enfermo.

.....BERTSOTAN

ESPERANTZARIK GABEKO AMODIOA

I. Amodioa gauza tristea,
bihotzen
guziz enea bezala bada
esperantzarik
gizonarentzat hau baino malur
handiagorik **badea?**
Ikusten eta ezin eskura
maitatzen duen
Onela bizi baino aunitzez hobe
litaie

II. O, Jainko ona, zendako bada
egin nauzu hoin
begien bixtan izar eder bat
ezarri
ikusi orduko maite nuena
nik ditudan indar **oro?**
Harek ordainez ez du enetzat
ez begi eta ez
Nehoz ikusi izan ez banu
hobeko nuen

III. Oi, ene maite ezin ukana,
zoin ziren
Maite dut zure begitarte,
maite zure boz
halaber zure irri gozoa,
zure izate
zuretzat baizik ez dut begirik,
zare ene **iguzkia**
gau eta egun zuri pentsatzen
deramat ene

IV. Martxoko hormak galduko duen
lore pollit
ta eihartzera bortxatua den
aizeak hautsi.....
ene bihotza ez ditaieka
gauza horier **konpara?**
Nehoz enea ez da izanen
maitatzen dudana
hartaz oroitzuz, maiz etortzen zaut
nigarra


V. Aitortzen dautzut, ene maitea,
goiz aski **banakiela**
etzintaizkela enea izan,
bertze batentzat
bainan halere maitatu zaitut,
ez bainezaken
ene bihotza bizi naizeno
izanen zaizu
zuretzat bizi ez bainitaieka,
zuretzat hil

Bertso oinak

abarra; - badea? - banakiela - begietara.- bertzela;- bihotz... - bizia. - daitazulakotz, - eztia, -
fidela, - gabea; - goiztiarra,-guzia; - higatzailea, - hiltzeal- iguzkia,- izarra, - konpara? -lorea! -
maluros, -nadiela! - ondikotz! - oro? - xarmagarria! - zinela;




Bi marrazki
hauetan 10
ezberdintas
un daude.
Ikusten al
dituzue?



LABIRINTOA

ZEIN BIDETATIK JOAN
BEHARKO LUKE
KUKUAK ERLOJURA
HELTZEKO?




HIZKI-SALDA

OSTADARRA
AZALDU DA.
AURKITU BERE
KOLOREAK.

G	E	R	A	N	L	U	H
L	P	G	M	O	R	O	S
S	A	O	Z	K	R	T	F
A	U	R	D	I	N	A	J
E	B	R	A	P	L	N	X
R	E	I	K	N	A	I	L
O	T	A	M	O	J	L	O
M	B	E	R	D	E	A	B

- 1- GORRIA
- 2- LARANJA
- 3- HORIA
- 4- BERDEA
- 5- URDINA
- 6- ANILA
- 7- MOREA



*Aste Santu baketsua opa dizuegu danoi.
Ongi pasa, indar berritu eta laister arte!*

IKASLE

IRAKASLE

GURASO

GARBITZAILE

SUKALDARI

ATEZAIN

ZAINDARI

ADMINISTRARI

DANTZARI

GIDARI

LANGILE

TXANTXO

TXIRRITX

ARGITXO

XANGO

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti



"la Caixa"

"Oiartzuarren
zerbitzura gaude"

Mendiburu kalea 2 • © 943 49 47 19



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 - Pol. Lanbarren - 20180 OIARTZUN

© 943 49 13 75 • Fax 943 49 34 62



BIOK ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN
© 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
© 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



TAJO Industrias Tajo, S. Coop.



NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
© 943 260 101 • Fax 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



A M E N A B A R

AENOR



Empresa
Registrada
ER-424/2/96



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • © 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • © eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapetan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 • 20180 OIARTZUN
© 943 26 04 26 - 943 26 03 91

Carrefour



OIARTZUN MERKATARITZA ZENTRUA